

### FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Gure enpresan honako sail hauek egongo dira, eta honako funtzioak izango dituzte:

- **Marketina:** Gure enpresan publizitateaz eta sare sozialetaz arduratuko den saila. Enpresaren irudiaz (eta, hortaz, bezeroek gutaz duten iritzia jakiteaz eta hobetzeaz) arduratuko den saila ere izango da, gure irudia hobetzeko programak aurrera eramanez (km0-ko produktuak sustatzekoa, eta abar). (Beste enpresa batzuek enpresa bat subkontratatzen badute ere, gure kasuan sail propioa izango da). Sormen handiko pertsona izanda, Olatz sail honetako arduraduna izango da.
- **Finantzak:** Kapitalaz eta inbertsioaz arduratuko den saila. Zenbakiekin trebetasuna duelako, María izango da sail honen arduraduna.
- **Bezeroak:** Bai establezimenduekin baita aplikazioko erabiltzaileekin ere harremanaz arduratuko den zaila. Hauek kezkak eta galderak erantzungo dituzte, aldi berean gure produktua eskaintzeko establezimenduak bilatzen dituzten bitartean.
- **Zuzendaritza:** Erabakiak hartuko dituen taldea. Adrianaren komunikatzeko gaitasuna eta Luisen ezagutza eta kontaktuak kontuan izanda, biak zuzendaritza sailean lan egingo dute.
- Hauetaz gain, kontuan izan behar dugu **produktuaz** arduratuko den saila ere egongo dela, aipatutako nutrizionistak eta abarrekoak osatuko dutena.
- 



Gure enpresa aurrera eramateko beste enpresa batzuekin itunak sinatzea beharrezkoa izango da. Hurrengo hauek sinatuko ditugu:

- Hasteko, hainbat **establezimenduekin** (hotelak, kafetegiak, jatetxeak...) itunak sinatuko ditugu, bertan gure produktua eskaintzeko (hau da, haien menuak gure aplikazioan agertzeko, eta haiek gorago azaldutako QR kodeak izan ahal izateko). Honako hauek oinarritzko itunak dira, gure enpresaren existentziaren oinarria direlako.



Era berean, gure aplikazioan publizitatea erakustearen truke, zenbait itun egingo ditugu ere hainbat establezimendurekin. Trukean, dirua kobratuko diegu, honela, baliabideak (kasu honetan, dirua, kapitala) eskuratzeko.

- Bestalde, gure **abilezia teknologikoaren** falta ikusita, teknologiararen sektoreko enpresa edo *freelance* batekin ituna egingo dugu, hauek gure aplikazioaz eta webguneaz arduratzeko.